

guztion onaren alde jarduten dauan era askotako hainbat alkarte dago... Holan, mundua eta behartsuenen bizi kalidatea zaindu egiten da alkartasun senez, Jaungoikoak maileguan itzi deuskun guztion etxeko bizilagun sentituz. Alkarte jarduera honeek, emoten dan maitasunaren isla diranean, esperientzia espiritual sakon bihurtu daitezkez” (LS, 232). Non gagoz konprometituta? Non garatzen dogu gure konpromisoa? Nogaz batera esku-hartzen dot mundu barriaren eraikuntzan? Beharbada, aztertu egin behar dodan kontua da. Ze urrats emongo dot, dogu?

4.- Bizkaiko Eleiza lez, martxoaren 31n Eleizbarrutiko Alkartasun Zeinua ospatuko da eta bertan parte hartzeko dei egiten jaku. “El mundo, nuestra familia. Etxean bezala makalenak lehenak” goiburua haritik, mundua alkartasunaren ikuspuntutik eraiki behar dogula azpimarratu gura da. Jesusegaz bat egiteak gure bizitza aldatu egiten dau eta senidetasunean hazten, guztion etxearen eraikuntzan gogo handiagoz jarduten laguntzen deusku. Horixe da aurtengo Zeinuan adierazo gura dana, Frantzisko Aita Santuak Laudato Si’ entziklikan dinoanaren haritik: *“Gizadiak badau oraindik guztiona dan etxea eraikitzen laguntzeko gaitasunik. Ezinbestekoak dira guztion talentuak eta konpromisoa. Giza familia bakarra garala sinistu behar dogu. Ezin da egon bakartuko gaituan hesi politiko edo sozialik, eta horrexegaitik, ez dago lekurik axolagabetasunaren orokortzerako be”* (LS, 52).

Parte hartzeko dei egin.

OTOITZA

Jauna, gaur badakigu deitu barik be etorri zarala gugana, bazatozala gugana.

Gugaz bat egitera etorri zara eta guri begiak zabaltzera zure arpegia ezagutu daigun eta sekula ez daigun bildurrik izan,



Zeu zaralako gure ibilpideko argia.

Etorri eta geure burua garbitzeko, Zeugan sinisteko eta zeure taldeko bihurtzeko baino ez deuskuzu eskatzen, gehien irrikatzen doguna izateko: argia eta ikusmena gure bidean.

GARIZUMA ALDIKO DOMEKETARAKO HOMILIETARAKO OHARRAK ELEIZAREN DOKTRINA SOZIALAREN HARITIK

GARIZUMA ALDIKO 4. DOMEKA – 2017ko MARTXOAK 26 JESUS, ARGIA DA



- **Samuel 16,6-7.10-13**

Belengo Jeserengana bialtzen zaitut. Honen semeen artean begiztatu dot errege egingo dodana... Ez begiratu horren itxurari... Kontua ez da gizakiak zeri begiratzen deusan, gizakiak itxurari begiratzen deutso-eta; Jaunak barriz, bihotzari.

- **Paulok Efesoko kristauei 5, 8-14**

Garai batean ilunpetan bizi zinien; orain, ostera, argitan bizi zarie, Jaungoikoagaz bat eginik. Jokatu, beraz, argiaren partaide zarienez; argiaren fruitua onginahia, zintzotasuna eta egia oro dira. Aztertu eizue zer jakon Jaunari atsegin eta ez hartu parte ilunpetan bizi diranen alferrikako egintzetan; salatu eizue, ostera...

- **Joan 9, 1-41**

Bidez joiala, jaiotzatik itsua zan gizon bat ikusi eban Jesusek... **“Jesus dalakoak** listuaz lohia egin dau, begiak igurtzi... joan garbitu eta ikusten hasi naz. (...) Eta zuk, zerdinozu begiak zabaldu deusuzanaz? **Profeta dala** (...) Alkartetik kanpora bota eben. Jakin eban Jesusek sendatutako itsua alkartetik kanpora bota ebela eta haregaz topo egitean, galdetu eutsan: “Sinisten dozu Gizonaren Semarengan?... Esaidazu nor dan, Jauna, sinistu daidan... Ikusi dozu. Zugaz ari dana bera da... **Sinisten dot, Jauna**”... Jesusen aurrean ahuspeztu zan...

1.- Ikustea eta begiratzea ez dirala gauza bera esaten dogu sarritan. ‘Begiratu’ esaten dogunean, borondatea jarten dogu jokoan.

Itxurakerietan, lehen begi kolpean ikusten dogunean, bistakoan... ez geratu. Sakonekoa, azkenengoandik... ikusten dauan Jaungoikoaren begiradaz begiratu. Minez begiratu. Samuelek, hasieran, lehenengo zirrarrari jaramon egiten deutso, baina adi dago eta ekinean jarraitzen dau, itxaron egiten dau... Jaungoikoaren egitasmoak egia bihurtzeko.

Zenbat bider dogun jarrera hori... Zenbat bider egiten doguzan despistatu plantak. "Ez deust begiratu ere egin". Axolagabekeriaz betetako esamoldea da, ezereztu, baztertu egiten dauana. Zenbat lagun, egoera... bazterten dogun, zenbati ez deusagun begiratzen... Zenbat bider aldatzen dogun kanalez, agertzen dana mingarria, itsusia dalako... interpelatu egiten gaitualako...



2.- Jaungoikoaren begiradak, Jesusen begiradak, Ebanjelioaren begiradak argi egiten dau, sakondu, duintasuna emon, lotu, interpelatu, aurretik jarritako eskemak apurtu... Maitasunezko begirada da, gizatasuna dakarrena.

Eleizaren Doktrina Sozialaren laburpenean, hauxe esaten da: *Karidade sozial eta politikoa ez da agortzen gizon emakumeen arteko hartu-emonetan; hartu-emon honeen sarean zabaltzen da, hau da, alkarte sozial eta politikoan, eta hemen esku-hartzen dau, alkarte osoarentzako ona ahalbideratuz. Alderdi askotan, maitatu behar dogun lagun hurkoa "gizartean aurkezten da eta, ondorioz, bera benetan maitatzea, bere behartasun edo pobretasunean asetzeak, maila individual hutsean egin deikeogun ona ez beste zeozer adierazo daike: gizarte mailan maitatzeak zera adierazoten dau: egoeren arabera, gizarte bitartekotzak erabiltea bere bizimodua hobetzeko; edo bere pobretasuna eragiten daben gizarte eragileak ezabatzea. Orain era hemen lagun hurkoaren beharizan benetako eta larri bati erantzuteko egiten dan errukizko ekintza, karidadezko egintza da; baina ezinbesteko karidadezko eginda da, era berean, gizartea antolatzea eta egituratzea, dalako lagun hurko horrek miseriarik jasan ez dezan, batez be egoera negargarri horretatik urten ezinda egundoko gizatalde jentetsuak, kasu batzuetan herri osoak, dagozanean. Egoera hori, gaur egun, munduko gizarte auzia da benetan". (EDS 208)*

Zelakoa da gure begirada? Zerk galarazoten deust Jaungoikoak ikusten duan lez ikustea? Nire begiradak, eraldatu, gizatasuna hedatu egiten dau ala axolagabekeria nagusitzen da nigan? Nork edo nortzuk eskaintzen deustez argia, bestelako begiradak? Jesus argi ete da nire bizitzako arloetan?

3.- Dana aldatzen dauan maitasunaren begirada da. *"Maitasuna, alkar zaintzea lako zeinu txikiez beteta, zibila eta politikoa be bada, eta mundu hobea eraikitzeari begira dagozan ekintza guztietan agertzen da. Gizarteaganako maitasuna eta guztion onaren aldeko konpromisoa karidadea gauzatzeko era bikaina dira; karidadeak, maitasunak, gainera ez dau eragiten gizabanakoen hartu-emonetan bakarrik, eragina dau, baita be, «makro-harremanetan, esate baterako harreman sozial, ekonomiko eta politikoetan». Horregaitik, Eleizeak «maitasunaren zibilizazioaren» ideala proposatu eutsan munduari. Gizarte maitasuna da benetako garapenaren giltza: «Gizatasun handiagoko gizartea, gizon-emakumeentzat benetan duina dan gizartea eratzeko, ezinbestekoa da gizarte bizitzan maitasunari balio handiagoa emotea –politika, ekonomia, kultura mailan-, ekintzaren arau iraunkor eta nagusi bihurtuz». Eremu honetan, eguneroko zeinu txikien garrantziaz gainera, gizarte maitasunak ingurumenaren narriadura eraginkortasunez geldituko daben eta gizarte osoa bustiko dauan zaintzearen kultura suspertuko daben estrategia handietan pentsatzera garoaz. Norbaitek besteekin batera gizarte dinamika honeetan esku-hartzeko Jaungoikoaren deia entzuten dauanean, hori bere espiritualtasunaren barruan dagoala gogoratu behar dau, maitasuna garatzea dala eta holan heldutasuna eta santutasuna jadesten dituala" (LS, 231).*

Zelan gauzatu maitasunezko zeinu zehatzetan mundu hobea eraikitze nahi horreek? Zelan argi egin hainbeste itsutasunetan, neure eta inguruko itsukeriatan? Eleiza lez, zelan izan argi Ebanjelioaren ardatzetatik, zalantzak, aurreretiak, bildurrak... gairiduta?



4.- Gure lekua zein dan ikusi, zertarako deituak garan jakin, deiak entzun... *"Danek ez dabe zuzenean politian jarduteko deia jaso, baina gizartean, ingurumen naturala eta uri ingurumena zainduz,*